

Udako keinuak

POR Jokin
Bildarratz



E GUNEROKO lan erritmotik pixka bat aldentzeko izaten ditugun udako oporretarako publizitate iragarkietan, bai aldizkari zein telebista edota bidaia agentzietan, leku paregabeak, tenperatura egokietan gozaten ari diren gorputz lirainak ikusten ditugu, paradisuako paisaiak gerturatu nahi dizkigutelako, ametsak errealitate bihurtzen direla helarazi nahian. Horren eraginez, uda idiliko bateko kanta prestatzen saiatzen gara guztiok ilusio handiz: ongi informatzen gara, gidak erosten ditugu... eta hor sumatzen dugu lehen sententzia arraroa, doinua ez datorrelako bat erritmoarekin.

Aipatutako bidaia liburu horien arabera dena da perfektua, ez dago arazorik inongo lurraldetan eta bakoitzaren ametsa asebetetzeko adina eskaintza dago: atseñen hartu, leku eta istorio harrigarriak ezagutu, kultura eta hizkuntza ezberdinez gozatu eta, ilunabar ikusgarriak ikusi ondoren, ederki lo egiteko aukera eskaintzen digute, amets gaiztorik gabe noski. Baina sarritan eskaintza horrek ez digu asetzen eta marratik haratago joateko joera dugu. Orduan, bertaratu aurretik, beste iturri ezberdin batzuetako ura edanez, gure opor lekuen historiak edo herrialde bezala izan dituzten konfliktuak irakurtzen dugu, etorkizun iluna iragarritzen dieten hodei beltzak antzemateko. Ikasturte osoko ipuin beltzei jarraipena emanez, udako hego haizeak ere ez ditu bere orriak eramaterik lortu. Etorikinen gaiak negar malkoz busti ditu, berriz ere, kontakizunaren orrialdeak, Mediterraneoko urak gaziago bihurtuz. Paradoxikoa da askoren gozamen lekua dena, beste askoren sufrimendu eta heriotzararokoa izatea. Zuri beltzean eta heldurrezko musika artean errepikatu zaizkigu itsasoan hildakoen irudi horiek begi ninietan, euren etxeetatik urrutitua noraezean dabilzan pertsonak, diruari pertsonaren bizitzari baino balio gehiago ematen dioten trafikatzailen hatzaparretan harapatutakoak...

Aurreko mende batzuetan bezala, arazo larria da XXI. mendean bizitzea tokatu zaiguna. Europar Batasunak inor inon nahi badu gaurko egunean, itereara bateratua aurkitu behar dio egoera honi.

Estatu bakoitza bere politika eta bere arazo soila konpondu nahian dabil eta bere errealitatea azaltzen saiatzen da, kolektiboari lekurik eskaini gabe; Batasunak elkarlaketza du bere jatorriaren oinarri. Erantzunak irizpide horietatik joan beharra dauka. Espainiako Estatuaren barruan gauza bera gertatzen da. Erakunde ezberdinen arteko elkartzasuna eta lan bateratua izan behar du oinarri; Aquarius ontziarekin Pedro Sanchezen Gobernu berriak egin zuen lehenengotarik "keinua" publikoki eskertu nion presidenteari Senatuko kontrol saioan egin nion lehen galderan, baina "keinua" ez dute errealitatea asetzen eta mamiaz bete behar dira. Arazoa larria da eta beste politika ba-zuk eskatzen ditu; beste alderdi politikoekin adostu beharrekoak. Ez da gauza bera Gobernuan edo oposizioan egotea; zentzu horretan, gai benetan zaila Kataluniarena izango da. Sanchezen Gobernuaren etorkizuna horri lotuta joango da; orain arte "keinua" izan dira nagusi, baina udazken honetan gai honi behar den bezala heldu beharko zaio itereara logiko bat eman ahal izateko.

Gutxienez, eskertzekoa da distentsiorako Exekutibo berriak erakutsi duen asmoa, baina Kataluniako gizarteak zer bait gehiago eskatzen du; hauek diotena entzun egin behar da eta horretarako hitz egiten utzi behar zaie.

Horretan, zeresan handia izango du Alderdi Popularraren jokabideak, orain-tsu lider berria hautatzeko kongresua egin duen alderdiarenak. Gurtel sententzia, Pedro Sanchez Presidente egin duen zentsura mozioa eta Mariano Rajoyren dimisioaren osten, Pablo Casado izango da kontserbadoreen presidentea aurreantzean. Afera deserosoan murgilduta dago orain arte nirekin Europar Batasuneko Batzorde Mistoko kidea izan dena, bere ditxosozko masterra dela eta. Uda osten, Auzitegi Gorenak erabakiko du erabaki beharrekoa, baina argi dagoena da erakutsi duen jokabidea ez datorrela bat nire barnean eta nire inguru hurbilean ditugun gazteek eta euren familiek dituztenekin. Master bat non 22 galetatik 18 ez dituen ikasi behar izan, automatikoki gaindituta izan dituelako, ez da inolaz ere eredugarria bitartean beste gazte asko masterrak, graduondo ikasketak edo atzerrian kurtsuak egiteko esfortzua egiten duten bitartean, euren familien ahal-egin ekonomikoak ahaztu gabe.

Uda honetan kontakizun beltz asko sumatu ditugu; zerranda luzea da eta hurrengo egunetan azaltzen joango naiz; zalantzarik ez izan. "Kontatu heldurrezko ipuin bat!"; ezaten zidaten umeek kanpian lotara joan orduko. Noski, muga jarri behar zitzaion heldurritari, bestela gau luzea eta iluna egiten zitzairen, beraien irudimentetik sortutako pertsonaiek eta munstroak izaten zituztelako amets lagun. Hala ere, amesgaiztoetarako ez dago helduoi kontakizun beltzik belarrira kontatu beharrik udako ilunabar ederretan, nahikoa dugulako eguneroko gertakariei erreparatzea. Ez dakit Hobbes-en "Homo homini lupus" esaldia egia izango den ala ez, gizakia gizakia-erentzat otsoa den ala ez, baina ez dago zalan-tzarik gizakion artean askotan krun delak garelako eta elkartzasun eta enpatia eza azaltzen dugula.

Uil Behar bada, irakurle, esnatu egin zaitut udako oporraldietako siestako momentu goxo horretatik. Jarraitu ezazu amesten zure hurrengo irtenaldiarekin baina ez ahaztu irakurritako ipuin beltzetako kontakizunak, orri horien atzean sufrimendu hitzak daudelako. Ni ur gazietan murgiltzera noa ea itsasoko olatuek kontakizun ilun horiek argitzen dizkidaten. Uda on! ●

* EAJ/PNVko senataria

Zirrikituetatik begira

ragin eta egun batzuk Lehen berde, biziazgoena, gris, beltz eta n da nonahi, eta erre- kutsatzen du. Munta gediak dira mendiko

alentzian izan da han- ko bat. Hain handia eta o da, non milaka biz- ak abandonatu behar n suaren mehatxua n ere, esku txar batek ek aliatua indartsu bat aizea. Bolada itzelak

eta ufada kontrolaezinak balio handiko basoak erre dituzte, bai eta bertako auzokoen zenbait etxe ere.

Borondate handiko eginahalak egi- ten dituzte, kasu horretan, borroka etengabean diharduten suhiltzaile zailak. Ehunka biltzen dira suaren aurrean haren trikimailuak azter- tzen eta deszifratzen, bertako tenperaturarik gorienei aurre egi- nez, norabidea aldatzen badu non- diki joko duen asmatzen saiatuz, alde batetik bestera korrika izer- ditsuan ura non botako, suaren

hatsa laster amata dadin, berriz ke beltzak udako zeru garbia estal ez dezan.

Tarte horretan baina, balio ekolo- giko handiko eremuak dira galtzai- leak, bai eta bertako ekosistemak ere. Ehunka animalia hiltzen dira sugarrek tragaturik, eta suak sor- tzen duen estresagatik beste asko okerbideraturik ibiltzen dira, hari- k eta amaiera tragiko batek akaba- tzen dituen arte. Datu horiek ez dira jakitera ematen, baina segu- ruenik zifrak emanez gero, buruko ile guztiak lastuko litzaizkiguke.

Irudi ikaragarriak izaten dira, behiak, zaldiak edota ardiak kiskaldurik agertzen direnean errealdiaz geroztik.

Zorionez, gero eta bakanagoak dira Euskal Herrian sortzen diren udako suteak. Gure basoetan, behar bezalako zaintza egiten da, eta entresak egiteko erabiltzen diren pistak oso mesedegarriak dira sutea gertatuz gero, bertatik bertara erasotzeko eta kontrola- tzeko.

Abuztua bero etorri da. Espero dezagun beroago ez bilakatzea. ●